

Kulturaren Euskal Behatokia
Observatorio Vasco de la Cultura

Kultura Ohiturei buruzko Panela
Azalpenen dokumentua

2016ko otsaila



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



Aurkibidea

Aurkezpena	3
1. Panelak edo inkesta longitudinalak	4
2. Ikuspegi kontzeptuala	6
3. Analisi-eredua	10
4. Metodologia	13
Eranskina. Galdetegia	18



Aurkezpena

2006ko amaiera aldean abian jarri zenetik, Kulturaren Euskal Behatokiaren helburu nagusienetakoa izan da kultura-ohiturak eta praktikak aztertzea. Izan ere, egin zuen lehen eragiketa estatistikoa *Kultura-ohiturei, praktikei eta kontsumoari buruzko estatistika (2007-2008)* izan zen. Estatistika horren emaitzak 2008ko udazkenean Bilbon egin ziren Kultura Behatokiaren Sarearekiko nazioarteko lan-jardunaldietan zabaldu ziren.

Hala, KEB ez da hutsetik abiatu kultura-ohiturak eta -praktikak aztertzen. Esandako estatistika ez ezik, gaiari buruzko beste azterketa batzuk ere eginak ditu (kuantitatiboak zein kualitatiboak), arreta gazteen ohitura eta praktikak zein diren jakiteko beharrez ipinita.

Azken urteetan, bi faktorek eragin dute EAEko biztanleen kultura-ohiturak ezagutzeko, Behatokiak erabilitako modua berrikustea: alde batetik, eragiketa handi berri bat egin ahal izateko aurrekontu mugatua, eta bestetik, ohiko tresna klasikoak dagoeneko ez izatea egokiak biztanleriaren kultura-ohitura berriak aztertzeko. Kulturaren arloan ikerketa egiten duten behatoki eta erakundeen artean kezka bilakatu da kultura-kontsumoaren analisia. Honelako fenomenoak analizatzea helburu duten erakundeek (ESS-net, UIS Unesco, Québec-eko Behatokia...) ikertze-eredu berriak ari dira formulatzen, ez haatik aplikatzeko zailtasunik gabeak. Beraz, lehenetsun-kontua da kultura-ohituren dinamikak eta bilakaera hobeto ulertzen lagun dezaketen metodologiak erabiltzea.

Kultura ikertzea helburu nagusia duen erakunde batek kultura-ohiturak ondo ezagutzeko bere zereginaren funtsezko atala duela sinetsita, gorago aipatu ditugun arrazoiek berrikuntzaren bidea hartu eta kultura-ohiturei buruzko panel bat abiaraztera bultzatu dute KEB.



1. Panelak edo inkesta longitudinalak

Ikerketa tresna bat da Panela, eta haren ezaugarri nagusia da lagina beti lagun berberak osatzea eta horiei denboran zehar egiten zaiela jarraipena. Teknika konplexua da, eta inoiz gutxi aplikatu da orain artean Euskadin; hala, kulturaren arloan egingo dugun hau eredu aitzindaria izan da kultura-ohituren jakintzaren eta kudeaketaren alorrean.

Teknika honen indargune gisa, -eta erabilitako datu iturriekin lotuta-azpimarratzeko modukoa da aukera ematen dutela gertakarien eta trantsizioen inguruko historia luzeak etenik gabe jasotzeko, datu zehatzagoak biltzeko - memoria-akatsetatik babestuagoak-, eta lagin-unitate berei etorkizunari buruzko itxaropenen eta gertaeren berri eskatzeko.

Metodoaren abantaila analitikoek, berriz, aukera ematen dute unitate bakoitzean gertatzen den aldaketa gordina eta batez besteko aldaketa aztertzeko, egonkortasuna zein ezegonkortasuna analizatzeko, gertakarien ezaugarriak, halaber inguruabar batzuenak -esaterako, haien maiztasuna, unea eta iraupena-denborarekiko nola portatu diren jakiteko, eta gertakarien ordena jakiteko. Horrek guztiak kausalitatea argitzeko balio izaten du maiz.

Halako azterketek arrakasta izango badute betebeharrak batzuk bete behar dira:

- Analisia populazioaren halako segmentu homogeneo baten gainean egin behar da.
- Laginak ez du zertan populazio osoaren adierazgarria izan.
- Hasteko, lagin zabaleko panel finko bat proposatzen da (200 lagin-unitate ingurukoa).
- Higadurari aurre egiteko, komeni da urtetik urtera unitate berriak gehituko direla aurreikustea (% 10 inguru).
- Lagin-aldiek gutxienezko maiztasun bat izan behar dute: baldin eta helburua aldaketak eta trantsizioak aztertzea bada, urtean behin egin beharko da gutxienez laginaren jarraipena.



- Halaber, epe luze batez luzatu behar da ikerketa bilakaera aztertu ahal izateko.
- Komeni da abiapuntuko hipotesi bat izatea esku artean analisia haren inguruan antolatzeko.
- Baliabideei dagokienez, telefono bidezko galdeketak eta aurrez aurrekoak *online* egiten direnak baino garestiagoak dira.

Lagina

Neurrira egindako panela eraikitzea proposatu da, kultura-ohiturak analizatzeko bi ezaugarri interesgarri hauek dituen segmentuan ipinita bereziki arreta: alde batetik, denbora epe laburrean, etorkizuneko bizitza taxutzen eta bideratzen duten trantsizio eta aldaketak bizi dituzte; bestetik, gerora populazioaren beste adin-tarteetara hedatzen diren joerak aurreratzen dituzte. Hain zuzen, 18 eta 37 urte bitarteko lagunek osatutako segmentuaz ari gara. Horren baitan bi azpi-talde bereizi ditugu, oso trantsizio-etapa nabarmenak baitituzte:

- 18 eta 27 urte bitarteko lagun-multzoa. Adin horietan ikasketak eta, etaparen amaiera aldera, emantzipazio-prozesuak dira inguruabar nagusiak.
- 28 eta 37 urte bitarteko lagun-multzoa. Adin horietan lan-merkatuan txertatzea eta familia sortzea izan ohi dira elementu nagusiak.

Lagina diseinatzeko unean aintzat hartuko da kideen sexuaren, EAEko jatorrizko lurraldeen, hezkuntza-mailaren eta euskara-jakintzaren banaketak orekatua izan behar duela. Azkenik, esan beharra dago halaber kultura kontsumitzen duten lagunak ditugula solaskide, arlo horren hurkoak. Lagineko kideentzako gutxieneko atalasea kalkulatzeko, izangaiek kultura-ohituren azterketetan ohikotzat jo izan diren jardueretatik bi behintzat eginak behar dituzte azken urtean: arte eszenikoetako ikuskizunen bat ikusiak, kontzerturen batera edo zinera joanak, erakusketaren bat bisitatuak, libururen bat irakurriak eta abar.



2. Ikuspegi kontzeptuala

Honelako aztergai bati ekiteko arrazoi nagusia da kultura-ohiturei eragiten dieten inguruabarrak eta aldagaiak ikertu nahia eta, beraz, bizitzan zehar bata bestearen ondotik gertatzen diren aldaketak eta horiek kultura-praktikei nola eragiten dieten analizatu nahia.

Helburua ez da populazioak une jakin batean zer kultura-ohitura dituen jakitea. Ohiturei buruzko inkestei esker, badakigu zer profil duen populazioak kultura-ohiturekiko: kulturazaleak "polikontsumitzaileak" dira; beste muturrean, ordea, bada populazioaren zati bat, aintzat hartzeko modukoa (% 37 Espainian, azken Eurobarometroko datuen arabera), oso parte-hartze txikia duena; bada zuzeneko ikuskizunetara –antzerkia, dantza, musika klasikoa, lirika...– joan ohi den ikuslego bat eta bada ikus-entzunezkoen kontsumo handia duen ikuslego bat ere; praktika minoritarioek dituzte ikusle fidelenak. Zenbaitetan, topiko bihurtu dira ebidentziak: emakumeek gizonetzkoek baino gehiago irakurtzen dute eta antzerki eta dantzazaleagoak dira haiek baino; musika klasikoaren kontsumitzaileak urtetsuak dira eta musika modernoarenak, berriz, gazteak eta gehienak gizonak.

Halaber gauza jakina da faktore sozio-demografikoek –adinak, heziketak, lana izateak eta ordaintzeko ahalmenak– zer-nolako lotura duten kultura jardueretan parte hartzearekin. Hala, zilegi da jardueretara joateko eta ez joateko patroiei buruz mintzatzea. Bestalde, kulturara ez iristeko dauden oztopo nagusiak, inkestetan adierazten dugunaren arabera, interes-falta, astirik eza eta prezioa dira.

Baina datuak ez ezik, baditugu intuizioak ere, eta horiek direla-eta uste dugu ohiko aldagaiez gain norberaren bizi-kondizioek eta inguruak, eta baita kulturaren alorrean izandako bizipen pertsonalek ere, oso neurri handian baldintzatzen dituztela eta eragiten dietela gure kultura-praktikei.

Parte hartzeko interesa eta alde zuzenetik aldeko jarrera duten eta, izan ere, hainbat kultura-jardueretan benetan parte hartzen duten pertsonak ari gara. Alde zuzenetik baztertu ditugu azterlan honetan "ez-ikusleak", horiekin kulturara



erakartzeko eta zaletasuna pizteko estrategiak abiaraztea posible bada ere (ikus bedi Publikoak Garatzeko Azterlana, KEBena).

Idea nagusiari berriro helduta, kontua ez da une jakin bateko kultura-ohiturak deskribatzea, baizik eta haien arrazoa argitzea, gainera dimentsio tenporala gehituta argitu ere. Horrek aukera eman behar du ohitura horien denbora-kurbak marratzeko eta aldaketa bat eragiten duten faktoreak identifikatzeko.


Azterlanaren hipotesi orokorra da kultura-ohiturak inguruarekin lotutako aldagaien baldintzapean (kultura-eskaintzarekin, alegia), aldagai soziologikoen baldintzapean eta aldagai psikologikoen baldintzapean daudela. Elementu horiek aldatzen diren neurrian aldatzen dira kultura-praktikak berak ere. Panelak lagundu egingo digu ulertzen nola eta zergatik aldatzen diren ohiturak denboran, zer eragin duten egoeraren araberrako kontuek, bizitzako zer kondiziok baldintzatzen dituzten gehien ohiturak eta abar.

Portaera soziala aztertzeke ohiko eskema bat, ondo finkatua, dakar berekin hipotesiak: ingurunean badira eragile edo aldagai batzuk, ohitura eta praktikak baldintzatzen dituztenak; badira ere eragile edo aldagai soziologikoak; eta azkenik, badira ere bereganatutako ohiturak ulertzen laguntzen duten alderdi psikologikoak. Alderdi horiek guztiek kultura-ohituretan eragin dezaketela jakitun, horietako bat aldatzeak, ohiturak aldatzea ekarriko du.

Faktore psikologikoa bereziki interesgarria da, atzera elikatzen baitu prozesua: bizipen bat asegarria izan bada, sendotu egingo da praktika eta maizago jardungo da horretan, ohitura bihurtu arte. Alderantziz, praktika bat ez baldin bazaio pertsonari psikologikoki asegarria suertatzen, azkenean bertan behera utziko da.



1. irudia: Azterlanak darabilen hipotesiaren eskema



Labur, analisiak pertsoneri gertatzen zaizkien aldaketak ditu ardatz nagusia, hainbat ikuspegitatik begiratuta.

Hala, profil jakin batzuk dituzten pertsonen ohiturak eta praktikak analizatuko ditugu. Esate baterako, hiri batean bizi den eta unibertsitatean sartu berria den 18 urteko gazte baten praktikak beste pertsonenak ez bezalakoak izango dira. Bada ohitura horiek aldatu zaizkion galdetuko diogu denboran zehar. Eta, aldi berean, galdetuko diogu bere bizitzako kondizioak aldatu zaizkion ere. Intuizioa dugu badela lotura kausala pertsona baten egoera pertsonal, ekonomiko eta heziketakoaren eta haren ohiturak aldatzearen artean. Hori egiaztatzen (edo arbuiatzen) lagunduko du, besteak beste, azterlanak. Panelaren abantaila da, beraz, lagun berari jarraituko diogula denboran zehar eta haren bizitzako inguruabarrak "miatuko" ditugula; horren ondorioz, ohiko inkestek ematen duten irudi finkoa ez ezik, posible izango dugu esplikazio bat ere lortzea. Eta 204 lagun izanik, horietako bakoitzaren ibilbide pertsonala ez ezik, profil eta talde homogeneousak aztertu ere ahal izango ditugu: nola portatzen diren, beren arteko konparazioak egin eta abar.



Are gehiago, ohiturekin zerikusia duten hainbat konturi buruzko galdera esplizitu batzuk ere egingo dizkiegu. Halako edo halako kultura-jarduera egiteko, edo ez egiteko, ematen ditugun arrazoiek ezkutuko beste arrazoi batzuk estaltzen dituzte maiz, kontziente izan gaberik ere edo onartu nahi ez izanagatik ere. Hori egiaztatzeko, zuzenean galdetuko diegu panelistei ea zer aldaketak eragin dieten lehen baino gehiago edo gutxiago kontsumitzea. Aldaketa horiek analizatzeko, alde batetik, galdera esplizituak egingo zaizkie parte-hartzaileei, eta bestetik, emaitzen ustiaketak ematen dituen korrelazioak aztertuko dira.


Proposatu dugun eskematik abiatuta, komeni da jakitea ea aldagai nagusien artean erlaziorik dagoen eta nolakoa den erlazio hori.



3. Analisi-eredua

Proposatu dugun ereduak gorago azaldu den hipotesiak garatzen du. Denboran zehar jakin nahi diren egoeraren araberako elementuak gehituko zaizkie horiei.

2. irudia: Panelaren eredu kontzeptualaren eskema



Aldagai independenteak:

- **Inguruarekin** lotutako dimentsioak, funtsean, eskaintza kulturalak aisialdiko beste aukeren aldean duen posizioa irudikatzea du ezaugarri nagusia. Helburua da gure aisialdian egin ditzakegun beste jarduerak (lagunekin irtetea, kirola egitea...) zer lehia dakarten identifikatzea. Horrez gain, inguruaren aldaketek (kulturaren kontsumoa sustatzeko ahalko programa jakin bat, praktika jakinetan sakontzeko moduluak, sasoiaren araberako gertakari eta programak...) praktikei nola eragiten dieten argitzen laguntzen duten elementuak ere, egoeraren araberakoak, gehituko dira.



- Dimentsio **sozio-estrukturala** laburtzeko, esan liteke “ni eta neure inguruabarrak”. Haurtzaroan jasotakoari lotutako baldintzagarrien artean, bereiz litezke, alde batetik, norberarenak –lan-egoera, esaterako– eta, bestetik, bizitzako trantsizio-etapa esaten zaienak. Kultura-jardueretan parte hartzeko denbora eta baliabide gehiago edo gutxiago izango dira libre horien arabera..

Dimentsio sozio-estrukturalaren eta psikologikoaren arteko erdibidean koka ditzakegu kulturaren kontsumoaren oztopoak. Denetarik izan daitezke horiek, dela bizi-zikloarekin edo lan-egoerarekin lotuak, dela psikologikoak, kulturarekiko atxikimendua urritu izana...

- Funtsean, norberak bilatzen dituen onurak lortzen diren begiratzen da dimentsio **psikologikoan**. Bereziki erakargarria egiten da kultura-ohiturak sendotze-mekanismo baten bitartez finkatu edo baztertu litezkeela dioen hipotesia.

Mendeko aldagaia:

Luze eta zabal bilduko dira **kultura-ohiturak (kontsumo-maila) eta kultura-praktikak**. Hainbat modutako kultura-produktuen kontsumoa dute lehenek mintzagaia; bigarrenak, berriz, panelistak egiten dituen edo aktiboki parte hartzen duen arte-adierazpen gisa definitzen dira.



Ereduaren kudeaketa

Eredua denboran zehar aplikatzeko sei- hiletik behin biltzen da informazioa (urtean bi lagin-aldi, alegia). Galde-sortaren blokeei dagokienez, eskema honetan azaltzen da grafikoki nola kudeatzen den bilketa.

3. irudia: Galde-sorta kudeatzeko sekuentzia

	1. blokea FAKTORE EXOGENOAK	2. blokea KULTURA- PRAKTIKAK	3. blokea FAKTORE ENDOGENOAK	4. blokea EGOERAREN ARABERAKO ELEMENTUak
1. lagin-aldia	Osorik	Osorik		
2. lagin-aldia		Ohitura-aldaketa	Osorik	aldakorra
3. lagin-aldia	Egoeraren araberako faktoreak bakarrik	Ohitura-aldaketa	Osorik	
4. lagin-aldia		Ohitura-aldaketa	Osorik	aldakorra

Lagin-aldi bakoitietan panelisten profilen inguruko informazioa edo faktore exogenoei eta kultura-praktikei buruzkoa biltzen da. Kontuan izan behar da 1. eta 2. blokeak lehen lagin-aldian baizik ez direla osorik galdetzen. Hurrengo lagin-aldietan, izandako aldaketei buruzko informazioa baino ez da galdetuko, betiere panelista bakoitzak aurretik emandako erantzunen berri azalduta.

Lagin-aldi bikoitietan, 2. blokea (aldaketak besterik ez) eta 3. eta 4. blokeak egingo dira, azken horiek kultura-eskaintzaren faktore endogenoei eta egoeraren araberako elementuei antza hartzeoak, hurrenez hurren. 4. blokea nahieran pasa liteke, informazio hori biltzea interesgarria den ala ez.



4. Metodologia

Siadeco enpresa arduratu da panelistak hautatzeaz eta informazioa biltzeaz.

Panelaren osaketa

Bi irizpide hartu dira aintzat panela konfiguratzeko: adin-tarte horretako populazioaren banaketa sexuaren, adinaren, bizilekuaren lurralde historikoaren eta euskararen jakintzaren arabera, alde batetik, eta bestetik, ezinbesteko irizpide baztergarri gisa, gutxieneko kultura-kontsumo jakin bat izatea.

Hala, bada, kultura kontsumitzen duten lagunengana jo dugu eta kontsumitzen ez dutenak, berriz, baztertu egin ditugu. Horixe da paneleko kideak hautatzeko ezinbesteko baldintza. Kultura-kontsumoan gutxieneko atalasea finkatzeko, erabaki da azken urtean eginak behar dituztela, bitan gutxienez, kultura-ohituren ikerketari lotuak ohiz jo izan diren kultura-jarduerak.

Laginaren diseinua behin betikoz zehaztuta, honakoa egin dugu:

- Panelean parte hartzeko baldintzak beteko zituzten pertsonak bilatu, eta Kontsulta eta komunikazio protokolo jakin batzuk martxan jarri, panela osatuko zuten pertsonak hautatu eta panelean parte hartzeko gonbita onartzeko. Hiru eratako protokoloak erabili ditugu:
 - 1. Protokoloa.- Etxeetara deitutakoan, lehen harremana izan den pertsonarekiko komunikazio protokoloa.
 - 2. Protokoloa: - Panelista izan daitekeen pertsonarekiko komunikazio protokoloa.
 - 3. Protokoloa: 3.- Panelista izateko prest agertzen den pertsonarekiko komunikazio protokoloa.

Honela beraz, honakoak izan dira panela osatzeko operazioaren egiteko nagusiak:



1. Panelistak detektatu beharreko udalerrri eta etxebizitza hautatzeko sistema aplikatzea.
2. Etxe horretako lehen solaskideari, proiektua azaletik eta egilea aurkeztu.
3. Etxe horretan, paneleko kide izatera irits daitekeen pertsonarik ote dagoen jakiteko sistema martxan jarri: kuota sozio-demografikoen sistema aplikatu, eta kultura-kontsumoaren inguruko galde-sorta laburra egin.

Ondoren, bi aukera daude:

- 4.A.- Etxebizitza horretan panelista izan daitekeen pertsonarik ez badago, kontaktua amaitutzat eman da, eskainitako arreta eskertuz.
- 4.B.- Etxebizitza horretan, panelista izan daitekeen pertsonaren bat biziz gero, berarekin harremanetan jarri gara, kultura-ohiturei buruzko kontsulta panelaren proiektua xehetasunez azaldu eta panelean parte hartzera gonbidatzeko.

Eta jasotako erantzunaren arabera, honela jokatu da:

- 4.B.a.- Gonbidapenari uko eginez gero, harremana amaitutzat eman da, eskainitako arreta eskertuz.
- 4.B.b.- Panelean parte hartzeko gonbidapena onartuz gero, komunikazio prozesu bat abiatu da pertsona honekin:
 - Paneleko kide izateko beharrezkoa den informazio osagarria eta ezaugarri pertsonalak eskatzeko. (Ad: Zein ordutan nahiago duen berarekin harremanetan jartzea, telefono mugikorreko zenbakia, posta elektronikoa, etab.)
 - Panelista modura, bere konsistentziaren eta denboran mantentzeko aukeren inguruko gutxieneko testa egiteko.
 - Formalki panelista izendatzeko.
 - Panelaren funtzionamenduaz informazioa emateko:
 - Emandako informazioaren eraginkortasuna eta funtzionaltasuna azaltzeko.
 - Kontsultaren aldizkakotasuna.
 - Emandako informazioaren anonimatua eta sekretu estatistikoa bermatzeko, eta panelistaren eskubide eta konpromisoak azaltzeko.



- Eskainitako arreta eta panelean parte hartzeko konpromisoa eskertzeko.

Honela, 204 panelistaz osatutako panel bat eratu da, denak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren kultura-kontsumitzaileak, 18 eta 37 urte bitartekoak. Bi multzo edo azpipaneletan banatua da panela:

- A azpipanela: 102 panelistaz osatua. 18 eta 27 urte bitarteko kultura-kontsumitzaileak.
- B azpipanela: 102 panelistaz osatua. 28 eta 37 urte bitarteko kultura-kontsumitzaileak.

Panela konfiguratzeko landa-lana 2015eko urriaren 13a eta 27a bitartean egin zen. 5.876 familiarekin kontaktatu zen guztira, eta 204 panelista titular lortu ziren.

Panelaren lehen lagin-aldia

Panelaren lehen lagin-aldiari zegokion landa-lana 2015eko abenduaren 14a eta 30a bitartean egin zen.

Edukiari dagokionez, panelari egindako lehen kontsulta, bi gai-multzo edo bloke nagusien inguruan egituratu da:

- 1. Gai-multzoa: Panelistaren profila eta haurtzaroko sozializazio kulturala.
- 2. Gai-multzoa: Panelistaren kultura-ohitura eta -praktikak.

Bi gai-multzo horietako bakoitzean, honako gai zehatzagoen inguruko informazioa bildu da:

PANELISTAREN PROFILAREN inguruan:

- Panelistaren sexua, adina eta bizilekua



- Familia egoera: Norekin bizi den.
- Hezkuntzarekin loturiko aldagaiak (heziketa-maila)
- Lau hizkuntza trebetasunetan euskaraz duen ezagutza maila: ulermena, mintzamina, irakurmena eta idazmena.
- Lan egoera.

HAURTZAROKO SOZIALIZAZIO KULTURALAren inguruan:

- Gurasoen ikasketa maila.
- Haurtzaroan liburuak, musika tresnak, CDak, etab. eskura izan ote dituen ala ez.
- Haurtzaroan honakoetara zein maiztasunez joaten zen eta norekin: museo edo arte galeriatara, antzerkera, kale ikuskizun edo jaialditara, dantza, musika klasikoko ikuskizunetara, kontzertuetara, liburutegira, zinemara.
- Astegunetan eta asteburutan duen denbora libre.

KULTURA-OHITURA ETA -PRAKTIKEI dagokionez, paneletik honako informazioa jaso da:

- Ondorengo kultura-praktikak zein maiztasunez egiten dituen eta nola baloratzen dituen: zinema, kontzertuak, ikuskizunak, erakusketak eta liburutegiak.
- Interneteko ikus-entzunezko edukia zein maiztasunez kontsumitzen duen eta zein eratarik (filmak, serieak, bideoak).
- Zein maiztasunez jokatu den azken urtean bideo-jokoetara, eta zein euskarritan.
- Musika entzuteko modu desberdinak, eta kontzertu eta jaialdietara zein maiztasunez joaten den eta norekin (internet bidez -you tube, Vimeo... etab bidez- ikusitakoak barne).
- Ikuskizunen inguruko ohitura eta praktikak:
 - Zein generotako ikuskizun eszenikoetara joan den: zirkua, antzerkia, haur antzerkia, dantza, musikala, magia, literatur jaialdia edo zikloa, opera, bertsolariak...
 - Antzerki-aretoen batean abonua baduen ala ez.
 - Ikuskizunen hizkuntza.
 - Arte-eszenikoetako ikuskizunak internet bidez ikusteko ohitura eta horretarako arrazoiak.
- Bisitatutako erakusketa motak (museoak, arte-galeriak, erakusketa-aretoak, monumentuak...) eta internet bidez ikusten ote diren.



- Azken urtean irakurritako liburuak: euskarri mota (papera, deskargatuta...) eta irakurritako azken liburua zein hizkuntzatan den (euskara, gaztelania, ingelesa...).
- Liburutegian egin ohi dutena (informazioa bilatu, liburuak kontsultatu, prentsa irakurri, aldizkariak kontsultatu, materiala mailegatu, internet erabili, antolatutako jardueratan parte hartu, ikasi, etab.) eta internet bidez liburutegira sartzen ote den.
- Modu amateurrean honelako praktika kulturalik egiten ote duen: idatzi, margotu edo marraztu, bestelako arte plastikoak, argazkiak egin, bideoa egin, bestelako ikus-entzunezkoak (diseinu grafikoa, web-ak, etab.), bertsoak, antzerkia egin, dantza-balleta, abesbatzaren batean kantatu, musika tresnaren bat jo, besterik...

EAE-KO KULTURA OHITURAK EZAGUTZEKO PANELARI LEHEN KONTSULTA EGITEKO GALDE-SORTA

Panelista zkia.

Inkestatzaile zkia.

1. ATALA: SOSLAI A

G1.- Sexua

- GIZONEZKOA 1
- EMAKUMEZKOA 2

G2.- Jaiotze-urtea

G3.- Bizitokia

.....

Familia-egoera

G4.- Gaur egun, norekin bizi zara?

- BAKARRIK BIZI DA..... 1
- LAGUNEKIN BIZI DA 2
- BIKOTEKIDEAREKIN SOILIK BIZI DA..... 3
- SEME-ALABEKIN SOILIK BIZI DA 4
- BIKOTEKIDE ETA SEME-ALABEKIN BIZI DA 5
- GURASOEN ETXEAN BIZI DA 6
- Ed/EE 7

I kasketa maila

G5.- Zein ikasketa maila duzu amaituta?

- EZ DU OINARRIZKO BATXILERGOKO, OHO EDO DBHKO TITULURIK 1
- OINARRIZKO BATXILERGOA, OHO EDO DBH OSORIK 2
- GOI MAILAKO BATXILERGOA, BBB, LOGSE BATXILERGOA, UBI..... 3
- LH I, ERDI MAILAKO LANBIDE HEZKUNTZA 4
- LH II, GOI MAILAKO LANBIDE HEZKUNTZA 5
- DIPLOMATURA, ARKITEKTURA EDO INGENIARITZA TEKNIKOA, EDO LIZENTZIATURA IKASTURTEREN BAT GAINDITUTA..... 6
- LIZENTZIATURA, GRADUA, ARKITEKTURA EDO INGENIARITZA 7
- GRADU-ONDOKOA, MASTERRA EDO DOKTORETZA 8
- ZEHAZTU GABE 9

Euskararen ezagutza eta erabilera maila

G6.- Zein izan zen etxean ikasi zenuen lehen hizkuntza? (3 urte bete aurretik ikasitakoa)

- GAZTELANIA 1
- EUSKARA..... 2
- BIAK (GAZTELANIA ETA EUSKARA) 3
- BESTE BAT (ZEIN? _____) 4
- ED/EE 5

G7.- Zein da zure euskararen ezagupen maila?

	Ulertu	Hitz egin	Irakurri	Idatzi
- EZER EZ 1	1	1	1	1
- HITZ BATZUK..... 2	2	2	2	2
- ZERTXOBAIT 3	3	3	3	3
- NAHIKO ONGI 4	4	4	4	4
- ONGI 5	5	5	5	5
- ED/EE 6	6	6	6	6

G8.- Oro har, zein hizkuntzatan hitz egiten duzu erosoago, errazago?

- EUSKARAZ..... 1
- BIETAN..... 2
- GAZTELANIAZ 3
- Ed/EE..... 4

G9.- Gaur egun, zein da etxean nagusiki erabiltzen duzun hizkuntza? Eta eguneroko zereginetan? Eta zure aisialdian?

Etxean	Eguneroko zereginetan (ikasketak, lana...)	Aisialdian
--------	--	------------

- GAZTELANIA..... 1 1 1
- EUSKARA 2 2 2
- BIAK (GAZTELANIA ETA EUSKARA)..... 3 3 3
- BESTE BAT (ZEIN?.....) 4 4 4
- Ed/EE 5 5 5

Aldagai sozio-ekonomikoak (lan egoera)

G10.- Gaur egun zein da zure jarduera nagusia?

- BESTEREN KONTURA LANEAN, SOLDATAPEKO LANGILEA 1
- ZURE KONTURA LANEAN, AUTONOMOA..... 2
- LANGABEA, AURRETIK LAN EGINDAKOAZ ZARA 3
- LANGABEA, LEHEN ENPLEGU BILA ZABILTZA..... 4
- EZINTASUN IRAUNKORRA DUZU 5
- IKASLEA 6
- BESTERIK..... 7

G11.- Lanean ari bazara, zein da zure lanaldia?

- LANALDI ERDIA BAINO GUTXIAGO 1
- LANALDI ERDIA 2
- LANALDI OSOA..... 3
- Ed/EE 4

Sozializazioa - Haurtzaroa

G12.- Zure gurasoek, zein ikasketa maila dute amaituta?

A). Ama	B). Aita
---------	----------

- EZ DU OINARRIZKO BATXILERGO EDO OHOKO IKASKETARIK AMAITUTA 1 1
- OINARRIZKO BATXILERGOA, OHO EDO LEHEN IKASKETEN ZIURTAGIRIA 2 2
- GOI MAILAKO BATXILERGOA, BBB, UBI EDO "PREU" 3 3
- LANBIDE HEZIKETA I, ERDI MAILAKO LH, INDUSTRI OFIZIALTZA EDO MAILA BERTSUKOA 4 4
- LANBIDE HEZIKETA II, GOI MAILAKO LH, INDUSTRI MAISUTZA EDO MAILA BERTSUKOA 5 5
- DIPLOMATURA, ARKITEKTURA EDO INGENIARITZA TEKNIKOA EDO LIZENTZIATURA IKASTURTEREN BAT GAINDITUTA .. 6 6
- LIZENTZIATURA, ARKITEKTURA EDO INGENIARITZA 7 7
- GRADU-ONDOKOA, MASTERRA EDO DOKTORETZA..... 8 8

G13.- Zure haurtzaroen, zenbat liburu zeuden zure etxean?

- 50 BAINO GUTXIAGO..... 1
- 50 ETA 200 ARTEAN 2
- 200 BAINO GEHIAGO 3
- Ed/EE 4

G14.- Eta musika-tresnarik al zegoen?

- BAI..... 1
- EZ 2
- Ed/EE 3

G15.- Haurtzaroen, ba al zenuten etxean ondorengo soinu ekiporik?

BAI	EZ	Ed/EE
-----	----	-------

- CD GRABAGAILUA 1 2 3
- IRRATIA 1 2 3
- MUSIKA EKIPOA 1 2 3
- BINILOZKO DISKO-JOGAILUA 1 2 3

G16.- Zure haurtzaroko etxean, egunkaria erosten al zen eguneroko?

- BAI..... 1
- EZ 2
- Ed/EE 3

G17.- Haurtzaroan (0 -15 urte bitartean), zein maiztasunez egiten zenituen ondorengoak? Eta norekin?

	A). Zein maiztasunez?				B). Norekin egiten zenituen?							
	Maiz	Noizean behin	Inoiz ez	Ed/Ee	Bakarrik	Aisia taldeak	Guraso edo senide	Ikaste-txea	Lagunak	Besterik	Ed/Ee	Gainerakoak (ez du egin))
- MUSEO EDO ARTE GALERIETARA JOAN	1	2	3	4	1	2	3	4	5	6	7	8
- ANTZERKIRA JOAN	1	2	3	4	1	2	3	4	5	6	7	8
- KALEKO IKUSKIZUN EDO JAIALDIAK IKUSTERA JOAN	1	2	3	4	1	2	3	4	5	6	7	8
- DANTZA EDO MUSIKA KLASIKOKO KONTZERTUAK IKUSTERA JOAN	1	2	3	4	1	2	3	4	5	6	7	8
- KONTZERTUETARA JOAN	1	2	3	4	1	2	3	4	5	6	7	8
- LIBURUTEGIRA JOAN	1	2	3	4	1	2	3	4	5	6	7	8
- ZINEMARA JOAN	1	2	3	4	1	2	3	4	5	6	7	8

G18.- Haurtzaroan (15 urte bete bitartean), zein maiztasunez egiten zenituen ondorengoak?

	Maiz	Noizean behin	Inoiz ez	Ed/Ee
- LIBURUAK GUSTUZ IRAKURRI (IKASKETETARAKO BEHARREZKOAK EZ ZIRENAK)	1	2	3	4
- MARRAZTU EDO MARGOTU	1	2	3	4
- ISTORIOAK, POEMAK, ANTZERKI LANAK EDO MUSIKA IDATZI	1	2	3	4
- MUSIKA TRESNAREN BAT JO, ANTZEZTU, DANTZATU EDO ABESTU.....	1	2	3	4
- KONTSOLA, ORDENAGAILU EDO TELEFONO MUGIKORRAK ERABILI	1	2	3	4

Aisialdia

G19.- Oro har, astelehenetik ostiralera, zenbat denbora libre duzu?

- DENBORA LIBRE ASKO DUT 1
- NAHIKOA DENBORA LIBRE DUT 2
- DENBORA LIBRE GUTXI DUT 3
- OSO DENBORA LIBRE GUTXI DUT 4
- Ed/EE 5



G20.- Eta asteburuan?

- DENBORA LIBRE ASKO DUT..... 1
- NAHIKOA DENBORA LIBRE DUT 2
- DENBORA LIBRE GUTXI DUT 3
- OSO DENBORA LIBRE GUTXI DUT 4
- Ed/EE 5

2. ATALA: KULTURA-OHITURA ETA -PRAKTIKAK

Kultura-praktiken maiztasuna

G21.- Azken urtean, zein maiztasunez burutu dituzu ondorengo kultura-praktikak?

	Behin ere ez	Gutxienez behin	1-2 aldiz	3 - 5 aldiz	5 aldiz baino gehiago	Ed/Ee
- ZINEMARA JOAN	1	2	3	4	5	6
- KONTZERTUETARA JOAN	1	2	3	4	5	6
- IKUSKIZUNETARA JOAN	1	2	3	4	5	6
- ERAKUSKETETARA JOAN	1	2	3	4	5	6
- LIBURUTEGIETARA JOAN.....	1	2	3	4	5	6

(Azken urtean jarduera horiek egin dituztenei soilik)

G22.- 1etik 10era, (non 1 "oso txarra" den eta 10 "oso ona") nola baloratuko zenuke zure azken esperientzia.....?

	Oso txarra									Oso ona	Ed/Ee	Gain- rakoa
	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12
- ZINEMAN	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12
- KONTZERTUETAN.....	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12
- IKUSKIZUNETAN.....	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12
- ERAKUSKETETAN	01	02	03	04	05	06	07	08	09	10	11	12

G23.- Errepikatuko al zenuke esperientzia....?

	Bai	Ez	Ed/Ee
- ZINEMAN	1	2	3
- KONTZERTUETAN.....	1	2	3
- IKUSKIZUNETAN.....	1	2	3
- ERAKUSKETETAN	1	2	3

(Denei)

I kus-entzunezko edukia Interneten

G24.- Azken urtean, zein maiztasunez ikusi dituzu filmak, serieak, bideoak internet bidez (You Tube barne)?

- EGUNERO.....	1
- ASTEAN BEHIN BAINO GEHIAGOTAN.....	2
- ASTEAN BEHIN	3
- HILEAN BITAN-HIRUTAN	4
- HILEAN BEHIN	5
- HILEAN BEHIN BAINO GUTXIAGOTAN.....	6
- INOIZ EZ.....	7
- Ed/EE	8

G25.- Nola sartzten zara normalean filma, serie, bideo, etab. horietara?

	BAI	Ez	Ed/EE
- STREAMING BIDEZ	1	2	3
- DESKARGATUZ	1	2	3

G26.- Ordainketa edo harpidetza bidez eskuratzen dituzu?

- NORMALEAN BAI.....	1
- INOIZ, TARTEKA.....	2
- INOIZ EZ	3
- Ed/EE.....	4

Bideo-jokoak

G27.- Azken urtean, zein maiztasunez jokatu duzu bideo-jokoekin?

- EGUNERO.....	1
- ASTEAN BEHIN BAINO GEHIAGOTAN.....	2
- ASTEAN BEHIN	3
- HILEAN BITAN-HIRUTAN	4
- HILEAN BEHIN	5
- HILEAN BEHIN BAINO GUTXIAGOTAN.....	6
- INOIZ EZ.....	7
- Ed/EE	8

G28.- Zein euskarri erabili duzu jokatzeko?

	Bai	Ez	Ed/EE
A. - JOKO MOTA HONETARAKO KONTSOLA ESPEZIFIKOAN	1	2	3
B. - ORDENAGAILUA, JOKOA FISIKOKI ESKURATUZ I.....	1	2	3
C. - ORDENAGAILUA, INTERNET BIDEZ.....	1	2	3
D. - MUGIKORRA, JOKOA EROSIZ.....	1	2	3
E. - MUGIKORRA, INTERNET BIDEZ.....	1	2	3

Musika eta kontzertuak

G29.- Musika entzuteko, zein irakurgailu mota erabiltzen duzu normalean?

	BAI	EZ	Ed/EE
A. - ETXeko IRRATI EDO IRAKURGAILUA.....	1.....	2.....	3
B. - KOTXEKO IRRATI EDO IRAKURGAILUA	1.....	2.....	3
C. - ORDENAGAILU EDO TABLETA	1.....	2.....	3
D. - MUGIKORRA.....	1.....	2.....	3

G30.- Eta zein euskarri erabiltzen duzu musika entzuteko normalean?

	BAI	EZ	Ed/EE
A.- CD-A (EUSKARRI FISIKOA)	1	2.....	3
B.- INTERNET (STREAMING BIDEZ), DOAN.....	1	2.....	3
C.- INTERNET (STREAMING BIDEZ) ORDAINDUTA	1	2.....	3
D.- DOAN DESKARGATUTAKO ARTXIBOAK.....	1	2.....	3
E.- Ordainduz DESKARGATUTAKO ARTXIBOAK	1	2.....	3

G31.- Azken urtean, zenbat kontzertutara joan zara?

--	--

G32.- Jaialdiren batera joan al zara?

- BAI 1
- EZ 2
- ED/EE 3

G33.- Zein zen joan zinen azken kontzertuko abestien hizkuntza nagusia?

- EUSKARA..... 1
- GAZTELANIA
- INGELESA
- BESTE BAT
- ED/EE

G34.- Azken urtean, ikusi al duzu kontzerturen bat Internet bidez? (You Tube, Vimeo, etab.-en bidez)

- BAI..... 1
- EZ
- ED/EE..... 3

Ikuskizunak

G35.- Azken urtean, joan al zara ondorengo ikuskizun eszeniko motaren bat ikustera? Eta zein izan zen joan zinen azken ikuskizunaren hizkuntza nagusia?

	A). Joan al zara?			B). Zein zen hizkuntza nagusia?					
	Bai	Ez	Ed/Ee	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Besterik	Ed/Ee	Gainera-koa
- ZIRKUA	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6
- HAUR-ANTZERKIA	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6
- ANTZERKIA	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6
- DANTZA	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6
- MUSIKALA.....	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6
- MAGIA	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6
- LITERATUR JAIALDIA EDO ZIKLOA	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6
- OPERA.....	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6
- BERTSOLARIAK	1.....	2	3	1.....	2	3	4	5	6

G36.- Goian aipaturiko ikuskizun horietakoren bat internet bidez ikusi duzu?

- BAI 1
- EZ..... 2
- ED/EE 3

G37.- Abonamendu motaren bat al duzu antzokiren batean?

- BAI..... 1
- EZ
- ED/EE..... 3

(Ikuskizunen bat ikusi dutenei soilik)

G38.- Balora itzazu ondorengo alderdiek izan zuten garrantzia maila, internet bidez ikusitako azken ikuskizun hori, internet bidez ikusteko.

	Oso garrantzitsua	Nahikoa garrantzitsua	Ez oso garrantzitsua	Batere garrantzitsua ez	Ed/Ee
- EGITEN ZEN LEKUA OSO URRUTI ZEGOEN	1	2	3	4	5
- JOATEA GARESTIA ZEN	1	2	3	4	5
- JOATEKO DENBORARIK EZ NUEN	1	2	3	4	5
- IKUSKIZUNA ASPALDIKOA ZEN.....	1	2	3	4	5
- DOHAINIK ZEN	1	2	3	4	5
- ETXETIK ATERA GABE IKUSI AHAL IZATEKO	1	2	3	4	5
- IKUSKIZUNAZ BAKARRIK NENGOELA GOZATU AHAL IZATEKO	1	2	3	4	5
- MATERIAL EZEZAGUNA IKUSI AHAL IZATEKO	1	2	3	4	5
- WEB-AK IKUSKIZUNAREN INGURUKO INFORMAZIOA ESKAINI EDO INFORMAZIOAN SAKONTZEKO AUKERA EMATEN ZUEN.....	1	2	3	4	5
- SARE SOZIALEN BIDEZ BESTE IKUSLEEKIN KOMUNIKATU AHAL IZATEKO	1	2	3	4	5
- BESTELAKO ARRAZOIENGATIK	1	2	3	4	5

Erakusketak

(DENEI)

G39.- Azken urtean, zein eratako erakusketetara joan zara?

	BAI	EZ	Ed/EE
- MUSEOAK	1	2	3
- ARTE-GALERIAK	1	2	3
- ERAKUSKETA-ARETOAK	1	2	3
- MONUMENTUAK	1	2	3
- BESTERIK	1	2	3

G40.- Azken urtean, internet bidezko erakusketaren bat ikusi al duzu?

- BAI..... 1
- EZ..... 2
- Ed/EE..... 3

G41.- Zein euskarri erabili duzu erakusketa hori ikusteko?

.....

Liburuak

G42.- Azken urtean, lanarekin edo ikasketekin zerikusirik ez duten zenbat liburu irakurri dituzu?

G43.- Zein euskarri erabiltzen duzu?

	BAI	EZ	Ed/EE
- PAPERA	1	2	3
- ORDAINPEKO DESKARGA INTERNETETIK	1	2	3
- DOAKO DESKARGA INTERNETETIK	1	2	3
- BESTERIK	1	2	3

G44.- Irakurritako azken liburua, zein hizkuntzatan zegoen?

- EUSKARA

Liburutegiak

(Azken urtean inoiz liburutegiren batera joan direnei soilik)

G45.- Ondorengoak egiten al dituzu normalean liburutegian?

	Bai	Ez	Ed/Ee
- INFORMAZIOA BILATU	1	2	3
- LIBURUAK KONTSULTATU	1	2	3
- PRENTSA IRAKURRI	1	2	3
- ALDIZKARIAK KONTSULTATU	1	2	3
- MAILEGUKO MATERIALA ESKATU	1	2	3
- INTERNET ERABILI	1	2	3
- ANTOLATUTAKO JARDUERA BATEAN PARTE HARTU	1	2	3
- IKASI	1	2	3
- BESTE PERTSONA BATZUK LIBURUTEGIRA LAGUNDU	1	2	3
- BESTELAKOAK	1	2	3

G46.- Internet bidez sartzen al zara liburutegira?

- BAI 1
- EZ 2
- ED/EE 3

Kultura-praktikak

G47.- Azken sei hilabetetan parte hartu al duzu –zale edo afizionatu gisa- ondorengo jarduera kulturalen batean?

	Bai	Ez	Ed/Ee
- IDATZI	1	2	3
- MARGOA EDO MARRAZKIA	1	2	3
- BESTELAKO ARTE PLASTIKOAK	1	2	3
- ARGAZKIAK EGIN	1	2	3
- BIDEOA EGIN	1	2	3
- BESTELAKO IKUS-ENTZUNEZKOAK (DISEINU GRAFIKOA, WEB-AK, ETAB.)	1	2	3
- BERTSOLARIAK	1	2	3
- ANTZERKIA EGIN	1	2	3
- DANTZA, BALLETA	1	2	3
- ABESBATZAREN BATEAN ABESTU	1	2	3
- MUSIKA TRESNAREN BAT JO	1	2	3
- BESTERIK	1	2	3

HAUXE DA GUZTIA, MILA ESKER ZURE LAGUNTZAGATIK.